

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE




### Irurac bat Jokin de Pedro

ELKAR  
120 orrialde  
10 euro

### Hilketa perfektu baten akatsak

Jokin de Pedrok (Bilbo, 1955) gazteentzat idatzitako *Irurac bat* nobela beltzean hilketa perfektuaren berri ematen zaigu. Ordura arte bere emaztea izandakoaren dirua eduki nahi du gizon batek eta dena prest utziko du hori lortzeko. Horretarako profesional on baten esku utziko du emaztea akabatzea; bitartean, bera ondo ezagutzen duten kafetegian egongo da denbora-pasa, eta koartada borobiltzeko, arrasto guztiek seinalatzen duten koitadu bat bilatuko du. Profesionalak bere lana egina dagoela esanez deitzen dionean, gizona pozik jarriko da. Gustura ordainduko dio hiltzaileari eskatutako dirutzaren bigarren parte.

Alabaina, gure protagonistak ez daki gauzak ez direla joan berak uste bezala. Hau da, emaztea bizirik dagoela. Haren telefono deia jasotzean, sekulako ezustea izango du. |



### Antzinako Lanbideak XI Carmelo Urdangarin

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
224 orrialde

### Garai bateko lanbideen inguruko ikerketa

Carmelo Urdangarin Altunak (Deba, 1932) etnografia ikerketan azken urtean egindako lanen emaitzak bildu ditu *Antzinako Lanbideak XI* liburukian. Azpimarratzekoak dira itsas makinistei eta musika instrumentuak –txistuak, danbolinak eta atabalak– egiten dituztenei buruzko lanak. Halaber, erlojuak, zurezko altzariak eta alfonbrak egiten dituztenak ere aztertu ditu; baita txotxongilo egileak, zura-zen zizelkariak, apaingarri egileak, jostailu-artistauak, kutxak eta argizaiolak egiten dituztenak eta larruzko abarka egileak ere. Eta ez dira falta etorkizunean zailtasun handiak izan ditzaketenen beste lanbide hauetan aritzen direnak ere: marko egileak, koadernatzaileak, kutxatila egileak eta eraikin tradizionalen modelogileak. |

### Karmel-en 261. zenbakia

Euskal Herriko karmeldarrek plazaratzen dute *Karmel* aldizkaria. 261. zenbakian euskararen alde lanean ari diren bi lantalderean urteurrenak dakartzate. Batetik, euskal lexikologia aztertzen 25 urte daramatzen Bostak bat taldearen emaitzen berri eman dute. Bestetik, Kontseiluaren lehen hamar urteez jardun da Xabier Mendiguren Bereziartu. Aldizkariak bildu dituen beste gaien artean Benedikto XVI.aren *Spe salvi* entziklika, Inazio Arregik Jesusen Lagundiaren etorkizunari buruz azaltzen dituenak eta Joxe Ramon Etxebarria irakasleak idatzitako *Torturatuenganako sentimenduak* lana. Gainera, mitoak, erlijioa eta elezaharrak hizpide dituen Juan Mari Arrizabalagaren testua, Joxemari Urteagaren *Zotz* eta Joseba Aurkenerena Barandiaranen *Lurraren deia* aipa genitzake, besteak beste. |




### Karmel Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO  
KARMELDARRAK  
160 orrialde  
Urteko harpidetza:  
13 euro

### Lagun handiak etxea konpontzen

Iñaki Zubeldiak euskaratu duen *Munstroa eta Igelak* bildumako protagonistak oso adiskide onak dira. Baina Igelak uste du edozer egiten dakiela, eta Munstroa kankailu gizajoa da. Nolanahi ere, ondo konpontzen dira biak bizitzako zailtasunei irudimenez eta ausardiaz aurre eginez. *Etxearen konponketa* istorioan Munstroak bere etxea garbitu nahi du. Igelaren ustez garbitzea ez da nahikoa, etxe horrek pintura ukitu bat eta dekorazio pixka baten beharra ere badu. Munstroak ez du inoiz dekorazioaren kezkarik sentitu. Zorionez, Igelak asko omen daki dekorazioaz. Berak lagunduko dio. Nola? Igelak Munstroari esango dio altzariak non jarri behar dituen. Igelaren laguntza, txakurraren putza! Baina azkenean lan egin beharko du Igelak ere. |



### Etxearen konponketa

Rose Impey,  
Russell Ayto

IBAIZABAL  
38 orrialde  
6,90 euro



## Soziologia eta Historia batzen

Mikel Urkola

GAIK

300 orrialde

21 euro

## Gizarte mota diferentean teoria ebolutiboak

Mikel Urkolak Gaiak argialetxearen bidez kaleratu duen *Soziologia eta Historia batzen* liburuaren helburua, etengabeko krisian dabilen gizarte baterako zenbait ideia ematea da. Horretarako, hainbat gizarte motaren teoria ebolutiboak azaldu ditu: komunismo primitiboa, jabetza pribatuaren sorrera, patriarkatuak matriarkalismoa menderatu zueneko, estatuen eraikuntza, gerren logikak, aurrerakuntza teknologikoen xedeak, industrializazioen bultzatzaileak, klaseen arteko borrokak eta etengabeko aurrerakuntzaren prezioa: progresioa ala atzerakuntza? Galdera zail horri erantzun dio Mikel Urkolak, globalizazioan eta informazioaren gizartean murgildu aurretik. ■

## Pierre Lhanderen Yolanda eta beste euskarazko idazlanak

Jon Casenavek aitzin solasa, oharrak eta solas-ondokoak idatzi dizkio Pierre Lhande euskaltzain zuberotarraren Yolanda-ri. 1877an jaio zen idazlea eta egun erabat ahantzirik dagoela dirudi, bere garaian euskaraz lan ugari argitaratu zituen arren. Publikatutako obren artean, hogei Elizako gai eta prediku, hamasei saio, hiru biografía eta bederatzí eleberrí daude, besteak beste. Yolanda eleberrí historikoa, bere “euskal zikloa” osatzen dutenen artean garrantzitsuena da. Frantsesez idatzi zuen eta gipuzkerara itzuli, ondoren. ■

Yolanda

Pierre Lhande

EUSKALZAINDIA

104 orrialde / 10 euro



XABIER ETXANIZ ERLE

## «Gure gizartean kultura ideologia eta boterea ere bada»

Zer salatzen duzu *Literatura eta ideologia-n*?

Ukaezina da literaturak hasiera-hasieratik izan duela baloreak eta ideiak transmititzeko helburua. Euskal Herrian ere ugariak dira, esaterako, euskal literaturaren historian euskaltzaletasunak edo euskararenganako maitasunak bultzaturik idatzitako lanak. Baina badira gure merkatuan ere ideía aurrerakoen transmisioa zaintzen —eta bultzatzen— omen duten argialetxeak, beren testuetan estereotipo sexistak oharkabean islatzen dituztenak. Eta gure asmoa bada gizarte aurrerakoa, demokratikoa eta parte hartzailea, bizilagunen izpiritu kritikoa bultzatzen duen gizartea, sexismoaren eta indarkeriaren aurkakoa, xenofobia eta ezberdintasun sozialak baztertzen dituen gizartea, orduan hurrengo belaunaldiak kritikoa izan daitezzen borrokatu behar dugu. **Hurrengo belaunaldiak. Gaurko haurrak, alegia...**

Ezin dugu pentsatu haurrentzako liburuak inozenteak direla, politikak, entretenigarriak eta dibertigarriak besterik ez direla, testu guztiek ideía eta balore batzuk transmititzen baitituzte, bai irudien bidez, bai testuaren bidez.

**Disneyren lanei ere errepasso gogorra egiten diezu.**

Izan ere, Disney ez da entretenimendu eta dibertisorako enpresa soilik. Bere produktuekin herri kultura izatea lortu nahi du, herri kulturak eragin nabarmena baitu gizartearen eraketan eta gainera, heziketa boterea da —herri kultura hori bultzatzen edo proposatzen duenaren interes eta nahien zerbitzurako boterea—. Alde horietatik argi eta garbi esan dezakegu gure gizartean kultura —are gehiago *mass media* delakoen kultura— ideologia eta boterea ere badela.



GARI GARALALDE / A.P.

## Haurrentzako liburuen helburu moralizatzaileez

Literaturgintza bere osotasunean ideía batzuen menpe erabili izan bada, Xabier Etxaniz

Erle *Literatura eta ideologia* saioan azpimarratzen duenez, fenomeno hori are nabarmenagoa da haur eta gazte literaturan; liburu horien egituraren helburu moralizatzailea da nagusi. Gauzak horrela, euskal literaturan —eta neurri batean literatura guztietan— dagoen ideologizazioa islatzen ahalegindu da Etxaniz Erle, ahozko literaturatik hasiz. Euskal kulturaren urte askoan apaizen esku egon da literatura: “1545tik 1900era arte arte, ia 600 liburu argitaratu ziren euskaraz, eta horietatik hamabi besterik ez ziren sorkuntza liburu ez-erlijiosoak”. Apaiz horiek izan ziren ahozko literaturaren altxorra idatziz, kora pasa zutenak, zegoen aldaketa ideologikoa eginez: horretatik euskal herri ipuinetan ez dago elizaren kontrako aipa-

egileari galdezka



Literatura eta ideologia

Xabier Etxaniz Erle

UTRIUSQUE VASCONIAE

102 orrialde

menik, ez sexu konturik eta apenas boterearen aurkako aipamenik. Emakumearen kontrako ideiak —“Txakurrari hezurak, emazteari gezurrak bezalakoak”—, asko dira. Dena den, sexismoa gaur egungo literaturan ere ugaria da. Horretaz, indarkeriaz eta gatazkaz, liburuetan irudiek daukaten garrantziaz, Disneyren obraz eta irakurketa kritikoaz dihardu lanak. ■